



KONTU HARTZAILETZAREN TXOSTENA

2025/085 Zenb.

Gaia.- Barrundiako Udalaren aurrekontu orokorraren proiektua 2026 ekitaldirako

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 14.4 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, txostena idatzi da 2026 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektuaren gainean.

Txostenak ondokoak jaso behar ditu:

LEHENA.- Edukia bat datorren Toki Erakundearen Aurrekontuen arloan indarrean den legeriarekin, hau da, Aurrekontu Orokorren Proiektuak legeak eskatutako dokumentu erantsiak jasotzen dituen.

BIGARRENA.- Likidatzeko aurreikusitako baliabideen estaldura nahikoa izango den onartzea aurreikusitako betebeharrak guztiak finantzatzeko eta aurrekontu-ekitaldian egin beharreko gastuak egiteko, aurrekontu- eta finantza-orekari eutsita. Era berean, aurrekontu-egonkortasuna betetzen den.

HIRUGARRENA.- Korrelaziorik dagoen inbertsioen eta horiek finantzatzeko beharrezko diru-sarreraren artean.

I.- LEGERIA APLIKAGARRIA.

- .- Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua.
- .- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- .- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (TAOLA).
- .- 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa.
- .- Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Testu Bateratua (2021eko irailaren 29koa).
- .- 56/2015 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, azaroaren 3koa, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundearen kontabilitate-esparru arautzaile berria onartzen duena.
- .- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunen Lege Arautzailearen Testu Bategina onartzen duena (TOLATB).
- .- 500/1990 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, aurrekontuen arloan Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen VI. Tituluko I. Kapitulua garatzen duena.
- .- 38/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Iraunkortasun Finantzarioari buruzkoa.



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta dalekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
90144708b014180587007e923b0b082ac



- .- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Iraunkortasun Finantzarioari buruzkoa.
- .- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Iraunkortasun Finantzarioari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen.

II.- AURREKONTU OROKORRA.

1.- **Erakundearen Aurrekontu Orokorra** da Erakundeak gehienez aitor ditzakeen betebeharren eta dagokion ekitaldian likidatzea aurreikusten dituen eskubideen baterako adierazpide zifratu sistematikoa.

2.- Aurrekontuak ondokoak jasoko ditu:

- a) Diru-sarreraren gutxi gorabeherako egoera, ondokoak islatuta:
 - o Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoak.
- b) Gastuen egoera, ondokoak bilduta:
 - o Ekitaldiko betebeharrak betetzeko beharrezko ordainketa-kredituak.

3.- Erakundearen Aurrekontuak, era berean, ondokoak jasoko ditu:

- a) Programa funtzionalen koadro deskribatzaileak.
- b) Aurrekontuaren edukiaren eta aurrekoari dagokionez egingo zaizkion aldaketa nagusien zein berau eratzeko erabilitako irizpideen azalpenezko memoria.
- c) Ekitaldian egin beharreko inbertsioei buruzko eranskina, Erakundeak onartuta duen hirigintza-plangintzarekiko loturak adierazita. Inbertsioei buruzko eranskina Inbertsioen Proiektu mailan garatu ahal izango da.
- d) Transferentzia arruntei eta kapitalari buruzko eranskina, Aurrekontuan aurreikusitako kapitulu horiengatikoko gastuak xehatuta, baita diru-laguntzen kontzeptuak arautzeko prozedura ere.
- e) Zorpetzeari buruzko eranskina.
- f) Langileei buruzko eranskina, Erakundeko langileek bete beharreko lanpostuen zerrenda eta dagozkien soldatak barne.

4.- Aurrekontu Orokorra aurreko ataletan aipatu dokumentazioaz eratuko da, baita ondokoez ere:

- a) Aurrekontu Orokorraren azalpenezko Memoria, barne hartuta aurrekoei dagokienez aurrekontuetan eginiko aldaketen azterketa,



esanguratsuenak nabarmenduta, eta aurrekontu bakoitzaren edukiaren eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauan bildutako gainerako neurrien azterketa.

- b) Aurrekontu Orokorra Betearazteko Udal Araua.
- c) Buruturiko azken ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren Likidazioa.
- d) Txosten Ekonomiko-Finantzarioa: aurreikusitako diru-sarreraren eta kreditu-eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak, betebeharrak, baldintzak, erabilgarritasunaren nahikotasuna eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuak eta, ondorioz, Aurrekontuaren parekatze eraginkorra.

5.- Aurrekontuek bat egingo dute Arabako Lurralde Historikoko toki erakundearen kontabilitate-esparru arautzaile berria onartzen duen 56/2015 Foru Dekretuak ezarritako egiturarekin.

6.- Aurrekontu Orokorra **hasierako mentsik gabe** onartu beharko da. Era berean, ezin izango du mentsik izan ekitaldi osoan; ondorioz, aurrekontu-kredituetan gehikuntza oro edo diru-sarreraren aurreikuspenaren gutxitze oro berau adosteko egintza berean berdindu beharko da.

7.- Aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunarekin bat eginda eratu, onartu eta gauzatuko dira, Egonkortasun eta Hazkunde Itunetik eratorritako printzipioen arabera, Aurrekontu Egonkortasunari eta Iraunkortasun Finantzarioari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan eta Arabako Toki Erakundearen aurrekontu egonkortasunari eta iraunkortasun finantzarioari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan jasoak.

Aurrekontu egonkortasuntzat jotzen da egiturazko oreka- edo superabit-egoera, aintzat hartuta finantzaketa-gaitasunari dagokionez Nazio eta Eskualde Mailako Kontuen Europako Sistemaren jasotako definizioaren arabera eta Herri Administrazio bakoitzerako ezarritako baldintzetan.

Iraunkortasun finantzariotzat jotzen da uneko eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko gaitasuna, mentsari eta zor publikoari dagokienez Aurrekontu Egonkortasunari eta Iraunkortasun Finantzarioari buruzko Lege Organikoan eta Europako araudian ezarritako mugen barruan.

Aurrekontu egonkortasuna eta iraunkortasun finantzarioa ondoko printzipioen arabera gauzatuko dira:

Urte-aniztasunaren printzipioa. *Aurrekontuak eratuko dira epe ertainerako aurrekontu-esparruaren baitan, Aurrekontuaren onarpena eta betearazpena arautzen dituen urterokotasunaren printzipioarekin bat eginda.*

Gardentasunaren printzipioa. *Herri Administrazioen kontabilitateak, baita haien Aurrekontuek eta Likidazioek ere, informazio nahikoa eta egokia jaso beharko dute*



euren egoera finantzarioa egiaztatzeko, baita aurrekontu-egonkortasunari eta iraunkortasun finantzarioari begirako helburuak eta arlo honetan Europako araudian adosturiko eskakizunak betetzen direla ere.

Eraginkortasunaren printzipioa baliabide publikoen esleipenean eta erabileran. *Gastu publikoetarako politikak ezarri behar dira kontuan hartuta egoera ekonomikoa, politika ekonomikoaren xedeak eta aurrekontu egonkortasunaren eta iraunkortasun finantzarioaren printzipioen betetzea, eta gauzatuko dira baliabide publikoak eraginkortasunez, efizientziaz eta kalitatez kudeatuz; horretarako, gastua arrazionalizatzeko eta sektore publikoaren kudeaketa hobetzeko politikak aplikatuko dira.*

Erantzukizunaren printzipioa. Aurrekontu Egonkortasunaren eta Iraunkortasun Finantzarioaren Arauan jasotako betebeharren urraketak, hala nola Espainiako estatuak Europako araudiaren arabera bere gain harturiko konpromisoen ez-betetzea eragiten edo horretan laguntzen dutenek, eragingo dute Herri Administrazioek bere gain hartzea, egozgarri zaien alderdiari dagokionez, urraketak eragindako erantzukizunak.

Leialtasun Instituzionalaren printzipioa. Herri Administrazioak egokituko zaizkio, beren jarduketetan, leialtasun instituzionalaren printzipioari.

III.- IZAPIDETZEA ETA DOKUMENTAZIOA.

IZAPIDETZEA: Aurrekontu Orokorra, Alkateak eratu eta Kontu-hartzaileak txostena eginda, dagozkion dokumentazioa eta eranskinak xehatuta, Osoko Bilkurara eramango da onar, zuzen edo atzera bota dezan.

Aurrekontua behin-behinean onartutakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe horretan ez balitz erreklamaziorik aurkeztuko, Aurrekontua behin betikotzat onartuta joko da; bestela, Osoko Bilkurak hilabete izango du erreklamazioak ebazteko.

Behin betiko onarturiko Aurrekontua Kapituluaren arabera argitaratuko da ALHAOn (Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala).

Aurrekontuaren kopia bat Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio, Ogasun Ministeriora igor dezan, azaroaren 7ko HAP/2082/2014 Arauak aldatu urriaren 1eko HAP/2015/2012 Aginduaren arabera.

INDARRALDIA: Aurrekontua behin betiko onarpena aurreikusi bezala argitaratutakoan sartuko da indarrean.



IV.- AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA.

A) BARRUNDIAKO UDALAREN AURREKONTU PROIEKTUA 2026 EKITALDIRAKO

Jarraian, Kontu-hartzailera honen txostenean aurkezten den Proiektuaren laburpena dago zehatuta:

DIRU-SARREREN aurrekontua: **1.127.550,24 €**

GASTUEN aurrekontua.....: **1.127.550,24. €**

ALDERAKETA.....0,00 €

B) KALKULURAKO OINARRIAK

Ondoko **irizpide edo faktoreak** erabili dira diru-sarrerak kalkulatzeko eta aurrekontu-kredituak kuantifikatzeko:

1.- Baliabide ekonomikoaren kalkulua. Alkatetzaren proposamena oinarri egin dira, ondoko alderdiak kontuan hartuta:

- 2025erako likidatu beharreko eskubideen aurreikuspenak.
- Beste Herri Administrazio batzuen ekarpen-konpromisoak.
- Udalerrian hirigintza-arloan egin beharreko kudeaketari eta garapenari buruzko aurreikuspenak.
- Udal-ondarearen kudeaketa.

2.- Aurrekontu-kredituen kuantifikazioa. Premisa hauen arabera egin da:

- Aurrekontu-txantiloaren balioespina Udaleko langileen soldatak arautzen dituzten Akordio edo Hitzarmen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera.
- Hirugarrenekin hitzarturiko konpromisoak kontratu, hitzarmen, itun edo akordio bidez.
- Ondasun arrunten eta zerbitzuen beharren kuantifikazioa.

C.- AURREKONTU PAREKATZEA

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 14.6 artikulua arabera: "Aurrekontu orokorreko aurrekontu bakoitza **hasierako mentsik gabe** onetsi behar da. Nolanahi ere,

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalnegotioa.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA 90144708b014180587007e923b0b082ac



eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira”.

Udalaren Aurrekontu Proiektua orekatua aurkezten da.

D.- AURREZKI GARBIA

Hauxe da Aurrezki Garbiaren (Likidazioa) kalkulua:

(+) Diru-sarreraren Aurrekontuaren 1etik 5erako Kapituluetakoko diru-sarrerak (A)	1.127.550,24 €
(-) Gastuen Aurrekontuaren 1., 2., 3. eta 4. Kapituluetakoko gastuak (B)	944.535,45€
(-) Hitzartutako eta abalaturako Epe Luzerako maileguren eta proiektaturiko eragiketaren urterokotasun teorikoko amortizazio-zenbatekoa (C)	0,00 €
AURREZKI GARBIA = (A) - (B) - (C)	183.014,79 €

Beraz (likidazioa):

(+) Diru-sarreraren Aurrekontuaren 1etik 5erako Kapituluetakoko diru-sarrerak	1.127.550,24 €
(-) Doiketa negatiboak:	0,00 €
(-) atxikiak eta ez-errepikaria:	
= DIRU-SARRERA ARRUNTAK (A):	1.127.550,24 €
(-) Gastu arruntak (1etik 4rako Kapituluak) gehi amortizazio teorikoko gastua (9 kapituluak) (B)	944.535,45 €
= AURREZKI GARBI FINANTZARIOA: (A)-(B)=	183.014,79 €

Ondorioz, aurrezki finantzario garbia **POSITIBOA** litzateke, beraz, **BAI** berma daiteke etorkizuneko gastu arrunt guztien finantzaketa.

V.- AURREIKUSITAKO KAPITAL INBERTSIOEN ETA ERAGIKETEN FINANTZAKETA KOADROA.

BALIABIDEEN/DIRU-SARREREN JATORRIA			APLIKAZIOA		
KONTZEPTUA	ZENBATEKO A	%	KONTZEPTUA	ZENBATEKO A	%
Inb. Errealen Besterentzeak	0,00 €		Inbertsioak	176.014,79 €	
Kapital Transf.	0,00 €		Kapital Transf.	7.000,00 €	
Aktibo Finantzarioak			Inb. Aktibo		

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta dalekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
 g0144708b014180587007e923b0b082ac



			Finantzarioak		
Maileguak			Zor		
			Amortizazioa		
Sozietate Dibidenduak					
Aurrezki Gordina	183.014,79 €				
BALIABIDEAK GUZTIRA	183.014,79 €			183.014,79 €	

Zehaztu diren kontzeptuetatik argi eratorzen da udaleko inbertsioak Udalak berak sortutako aurrezki garbiaz finantzatzen dira, halaber kapital transferentziak, betiere lor daitezkeen diru laguntzen zain.

OHAR GARRANTZITSUA

Horrela, garrantzitsua da barne **aurrezki hori mantentzea eta handitzea** bideragarri egiteko inbertsioen atala, horretarako **guztiz beharrezkoa da** Ordenantza fiskalak eguneratuta edukitzea (ondasun higiezin zerga, ibilgailuen gaineko zerga, hondakin solidoak tratatzeko tasa, prezio publikoak, ...).

En este sentido, es absolutamente necesario modificar la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre bienes inmuebles en orden a llegar al mínimo fijado por el Decreto Foral Normativo 2/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, por el que aprueba el texto refundido de la Norma Foral del impuesto sobre bienes inmuebles. El mínimo fijado por el Decreto Foral normativo es del 0,30 y en el término municipal de Barrundia se aplicará el 0,27 %.

Por otro lado, el tipo correspondiente al impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras no ha variado significativamente en los últimos 30 años, generando un "gap" o déficit en el campo urbanístico.

Además, es preciso el cumplimiento íntegro de la legalidad en la financiación de la ordenanza fiscal reguladora de la tasa por la gestión de residuos sólidos urbanos.

Bestalde, aurreikusitako inbertsio horiek aurrera eramateko **GUZTIZ BEHARREZKOA da**, Udaltzak berak (bere barnetik irtendako) onartutako Giza baliabideen Plan Estrategikoa aurrera eramatea muturreraino, are gehiago, administrazio digitala ehuneko ehunean martxan izanik **EGOERA ERABAT OKERTU delarik (en este sentido, es URGENTE la incorporación de un Técnico de Administración General descrito en la relación de puestos de trabajo para realizar los informes jurídicos necesarios en los campos de intervención, contratación y urbanismo).**

Honi guztiari zera gehitu behar zaio; Udalak, jadanik, 6 eraikuntza garrantzitsu mantendu behar dituela, horrek, bigarren atalburua indartzea suposatzen du.

Espedientea osatzen duen dokumentazioa aztertuta:

- 2025erako Udalaren Aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen egoera.



- 2024 Ekitaldiko Udalaren Aurrekontuaren likidazioa.
- Langileei buruzko eranskina.
- Zorraren egoera.
- Inbertsioei buruzko eranskina.
- Aurrekontu Egonkortasunaren Legearen eta bat datorren Foru Arauaren ildo nagusiak.

Idazkaritza-Kontu Hartzailletza honek idatzi du

TXOSTENA:

1.- Barrundiako Udalaren Aurrekontu Proiektua, 2026 Ekitaldirako, OREKA egoeran dagoela diru-sarreraren aldetik, beronen zenbatekoa osoa 1.127.550,24 €takoa izanik, eta gastuen egoerei dagokienez, guztira 1.127.550,24 eurotakoa.

2.- Behin-behinean onartzeko organo eskuduna Udaleko Osoko Bilkura dela, "gehiengo soil" quorumarekin, Alkatetzak proposatuta.

3.- Onartzeko jarraitu beharreko prozedura txosten honen III. atalean jasotakoa dela.

4.- Aurrekontua onartuta, Aurrekontu Txantiloia eta Aurrekontua Betearazteko Araua ere onartutzat joko direla.

Ondorioz, BARRUNDIAKO UDALAREN 2026rako Aurrekontu Proiektuaren ALDEKO TXOSTENA IDATZI DA, ondoko oharrak jasota:

a) *Eragiketa arrunten aurrekontu-parekatzea irmo eta behin betikotzat jotzen da, eta hauxe da laburpena:*

I.- DIRU-SARRERAK

DIRU-SARRERA ERAGIKETA ARRUNTAK: 1.127.550,24 Euro.

II.- GASTUAK

GASTU ERAGIKETA ARRUNTAK:944.535,45 Euro.

DIRU-SARRERA/GASTU ARRUNTEN ARTEKO ALDEAK: 183.014,79 euro, INBERTSIOEN eta KAPITAL TRANSFERENTZIEN kostua finantzatzera bideratuak.

b) *Diru-sarrerak ekitaldi honetako likidazio-aurreikuspenei egokitu zaizkie, eta aurreikusitako diru-sarreraren kalkulua hirigintza-jardueraren irizpideen arabera, Eraikuntzen Zergarako eta aipatu jarduera zergapetzen duten gainerako zergetarako.*

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalarenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
90144708b014180587007e923b0b082ac

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	24/11/2025 08:44



c) *Gastuen Aurrekontuak 69.100,00 euroko zenbatekoa jasotzen du Transferentzia Arrunten IV. Kapitulan, udal-zerbitzuak ematen laguntzen duten jarduerak eta xedeak diruz laguntzera bideratuak, auzo-elkarteen, kulturalen, aisialdiko en eta kiroletako en kontura. Diru-laguntzen Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, aipatu aurrekontu-kredituak kudeatzeko, interesdunek eskaria aurkeztu beharko dute, Udalak aurretik oinarriak eta deialdia onartuta.*

d) *Aurrekontuan izenarekin ageri diren diru-laguntzak deialdi publikorik gabe eman ahal izango dira; halere, Memoria eta Gastuen Aurrekontua aurkeztu beharko dituzte, baita osteko zuriketa ere.*

Ozaetan (Barrundia),
IDAZKARI-KONTU HARTZAILEA-DIRUZAINA

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotiza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
90144708b014180587007e923b0b082ac

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	24/11/2025 08:44